

2993/2019 Alkatetza Dekretua, uztailaren 29koa, Udaltzaingoko ofizial-lanpostu bat (derrigorrezko 3. HEduna) administrazio arteko lehiaketa bidez betetzeko deialdian probak egiteko data onesten duena.

Uztailaren 22ko 2934/2019 Alkatetza Dekretuak xedatu zuen **Udaltzaingoko ofizial-lanpostu bat (derrigorrezko 3. HEduna)** hautatzeko prozedura **ETETEA**, izangaietako batek aurkeztutako errekusazioa ebatzi arte.

Bada, uztailaren 24ko 2962/2019 Alkatetza Dekretuak errekusazio-espeditente hura ebatzi eta gero, hautapen-prozesuarekin jarraitzea dagokio. Horren harira, beraz, Alkatetza honek zera XEDATZEN DU:

LEHENENGOA: Merezimendu espezifikoei dagozkien proben data, tokia eta ordua zehaztea: 2019ko uztailaren 4an izango dira, Basauriko Udaltzaingoaren komisarian (Jaga 2). 09:00etan izango da proba praktikoa, eta 11:45ean, berriz, nortasun-proba eta elkarrizketa. Aurreikusi da prozesua 15:30-16:00ak aldera amaitzea.

BIGARRENA: Ebazpen hau udal webgune eta iragarki-taulan, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea.

Basauri, 2019ko uztailaren 29a. ALKATEA, Asier Irigorri Basaguren.